

Bizitza danen amaia  
izaten oi da obia,  
errekasto danen loa  
gertatzen da itxasoa.

\* \* \*

Mendi erraien guna,  
zidar-ari...  
goizaldean itzal-preskoan  
basoak bera, zelaiak zear.

Iñular onak itzal-besoak  
goitik jeistean:  
galdu aut,  
aztu nauk...  
Ori dok bizitza:  
Ariñen baratza!

### *Kepa-txiki*

#### BELATXINGA TA PITXERRA

Txori artean baltza  
dogu belatxinga:  
zorrotz dauz erpatzarrak,  
pikua eskerga.

Mendi-ald: dakusgu  
ego bi zabalka,  
aren antsia sarri  
dantzugu arren ga.

Egarriak eukon bein  
gure txori arru,  
Uda berotan bait-zan  
ura txit eskastu.  
Zanburu'n ikazgiñak  
lanean aritu;  
ara doa egazka  
urik ete aurkitu.

Urez daurki pitxerra  
ikaztoi ertzean,  
ikazgiñak itxita  
irapil tartean.  
Pitxerrak ba-dau urik;  
baiña, zoritxarrean,  
a bai dala idorotzen  
arras ondarrean!

Larriaren zigorpe  
biotzean armin,  
ura atera naiean  
ta nora jo ez jakin.  
Ara buruak emon,  
ekin eta ekin:  
pitxerra guztiz bete  
arbel pitiñekin.

Ikazgiñak lo kukuxk  
ebela ederra,  
belatxingak arri xeez  
ase dau pitxerra;  
sama luzea gero  
ontzi barna lerra,  
ta nai aiña dau sor-az  
eztarri min erra.

Goen nunbait indarra,  
kemena areago;  
antzea, alan be, biok  
baiño ederrago.

### *Igotz*

#### AZERIA TA MATS-MORDOA

Orma barruan dauko mastia  
Etxe zuriko gaztiak.  
Ugari ditu, goian dindiliz,  
Mats-mordo eldu gorriak.